ERIKA EDE

2015.01.13 - 2015.02.15

HURRENGO ERAKUSKETAK

barriek 2015. BFAren sorkuntza artistikorako bekak

LAURITA SILES Otsailaren 17tik martxoaren 22ra

rekalde
Alameda Recalde, 30 | 48009 Bilbao
Tel. +34 94 406 85 32
www.salarekalde.bizkaia.net

Ordutegia
Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30
Igande eta jai egunetan: 10 - 14
Astelehenetan itxita

Horario
Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h
Domigos y festivos: 10 - 14 h
Lunes cerrado

Opening hours
Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h
Sundays and holidays: 10 - 14 h
Monday closed



sarrera doan | entrada libre | admission free

rekalde

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

Euskera

ERIKA EDE

Piel de Lluvia

2015eko urtarrilaren 13tik otsailaren 15era

• Rekalde Aretoak **Erika Ede**ren erakusketa aurkezten du Kabinete Abstraktuan. Erakusketa honekin abian jartzen da **barriek 2015** programa, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiaren sorkuntza artistikorako bekak jaso dituzten artisten aukeraketa bat erakusteko antolatzen den programa.

• *Piel de Lluvia (Euri-azala)* izeneko erakusketan, argazki-sail bat agertzen da, José Ignacio Anguisolaren testuz lagunduta. Familiaren memoria da erakusketaren “leitmotif-a”. Bizi izandako tokiak eta paisaia berreskuratuz, artistak informazioa biltzen du, noiz aurreko argazkiak errepikatuz, noiz beste batzuek idatzitako kontakizunak, literatura edo gutuneria jasoz.

• Itsasoa erreferentetzat hartuta, Erika Ede bere aurrekoen eta bere iraganaren munduan barneratzen da. Bidaia eginez aurkitzen duen itsasoa da, bere argazki izoztuaren gainean jarriz bere kameraren kliskagailuaz berriz jasotzen duena; edo Kantauri itsasotik hurbil dagoen beste hori, aitonaren argazki zahar baten gainean bere begirada paratuta islatzen duena.

• Artistaren hurbilpen pertsonal bat da, familiako esperientzian oinarritua, horrek bere bizitzako zenbait unetan Baltikoko eta Bizkaiko itsasaldeekin sortzen dion loturaren isla. Proiektu honetan, berriz katalogatzen ditu toki horiek, iraganeko argazkietan, olio-margolanetan, gogora berriz ekarritako pasadizoetan ageri ziren lekuak. Aurrena, zehatz azaltzen du itsasaldea, Lagako hondartzatik hasita, eta, Europa osoaren gainetik hegaldatuz, Rigako Daugavaren deltatik Mërsrags lurmuturrera hedatzen den itsasaldera iristen da.

ERAKUSKETA

Asko dira itsasoari buruzko interpretazioak.

Urte luzez bizi izan garen etxean emandako azken egunetan edo azken egunean, zain baten marrazkia aurkitzen dugu atean, ordura arte sekula ikusi gabea. Hori izango da nostalgiaren garraldia handik urte askotara, egunen joanean ohartuki bizi izandako etxe hartako beste objektu askori lotutako oroimenak piztuko dituena, pizgarri izan den xehetasun hori etxe hartako katalogoan sekula sartu ez bazen ere.

Objektuek ezin dute gogora ekarri beren burua, ez beste batzuena, ezta etxe horretan izandako bizitza bera ere, baina azken orduko aurkikuntza horrek, eraitsitako geletan, geletan egin dugun urratsa aldaira kamioian gordeta dugunean egindako aurkikuntza horrek, bai.

Mota horretako oroimenek duten izaera aglutinatzailea ez dago zehaztuta, baina arropen xehetasun bakoitzean, mahai-zapiaren uztai batean edota zeta berde baten gainean desegindako paparreko orratzean obsesiboki bilatzen dituen nortasuna, bai. Artista da mota horretako gizakia, eta oroimen horien kategoria mitoarena.

Königsstuhl auf Rügen, 2014

Eta itsasoaren edo itsasoen –Baltiko itsasoaren eta Euskal Herriko Kantauri itsasoaren– mitoen bidez, Erika Ederen *Piel de Lluvia* izeneko argazki-erakusketa honek bi mundu pribatu batzen ditu berriz: bere haurtzarokoa eta bere familiarena, hain garrantzitsua argazkigintzarako izandako bokazioari begira.

Erakusketa hau Erika Ederen azken sailen ildoan doa, *Una franja de Arena Blanca* eta *Grüße von Nah und Fern* sailen lerroan, eta orain asmo aldetik ere bat egiten du haiekin, itsasoaren motibo argiaren bidez.

José Ignacio de Anguísola

Jurmala, Latvija, 2013

ARTISTA

Erika Ede Bilbo eta Berlin artean bizi da eta lan egiten du. Artearen Historian eta Arte Ederren lizentziaduna da Madrilgo Unibertsitate Konplutentsetik. 1997. urtetik Bilboko Guggenheim Museoko Argazkigintza Saileko koordinatzaile eta argazkilari iraunkor gisa lan egiten du, eta UPV/EHUko ohorezko irakaslea da. 1994tik gaurdaino, Europako eta Ipar Amerikako prentsako hainbat argitalpenen lankidea izan da: Fígaro, El Correo, Washington Post, Geo, Elle, Art in America, Kunstforum, etab. Horrez gain, elkarlanean aritu da Berlingo beste argitalpen komertzial batzuekin eta Europako eta Estatu Batuetako museoetako arte-argitalpenekin.

Egin dituen erakusketen eta lortu dituen sarien artean hauek nabarmendu behar dira: European Award for Women Photographers. *Places of Life,* Prato, Florentzia, Italia, 2001; Foto Bild Berlin. Fair of Contemporary Photography, Berlin; Galaxia Gutemberg Galeria, Bartzelona; Kunst Köln, Alemania, 2001; Museo Zucchi, ClicArt Galeria. *It's a Man's World,* Milan, 2004; BBK Aretoa, *Das ist Berlin,* Bilbo, 2005; Paris Photo Off. FêtArt. *Retratos,* Paris, 2006; Espacio Marzana Galeria. *Retratos,* Bilbo, 2007; MuVIM, *Retratos,* Valentzia, 2008; Fotonoviembre, *Botanischer Garten,* Tenerife, 2009 eta Bilbao Arte, *Grüße von Nah und Fern,* Bilbo, 2012.